

ITSAS OSASUNeko PROBINTZIA ZENTROAK

A CORUÑA Avda. Ramón y Cajal 2 15006 Tel.: 881 90 98 00 · ALACANT Moll de Ponent 2 03001 Tel.: 965 92 39 71 · ALMERÍA Muelle Puerto Pesquero s/n 04002 Tel.: 950620147 · BARCELONA Albareda 1 08004 Tel.: 934 43 96 03 · BIZKAIA (Bilbao) Virgen de Begoña 32 48006 Tel.: 944 73 90 20 · CÁDIZ Avda. de Vigo s/n 11006 Tel.: 956 20 60 53 · CARTAGENA (Murcia) Paseo Alfonso XII s/n 30202 Tel.: 968 50 24 33 · CASTELLÓ Plaza Mikel Peris i Segarra s/n 12100 Tel.: 964 28 54 08 · CEUTA Avda. Cañonero Dato 20 51001 Tel.: 956500240 · GIJÓN (Asturias) Celestino Junquera 19 33201 Tel.: 985309170 · DONOSTIA (Gipuzkoa) Hermanos Otamendi 13 20014 Tel.: 943 48 35 74 · HUELVA Avda. Hispanoamérica 9 21001 Tel.: 959 25 74 11 · LUGO Ronda Múxico Xosè Castiñeira 10 Bajo 27002 Tel.: 982 22 50 10 · MADRID Gaztambide 85 28003 Tel.: 914 41 25 30 · MÁLAGA Pasillo del Matadero 4 (Puente del Carmen) 29002 Tel.: 952 35 93 61 · MELILLA Avda. de la Marina Española 7 52001 Tel.: 951 76 43 78 · ILLES BALEARS (Palma de Mallorca) Moll Vell 15 07012 Tel.: 971 72 56 06 · LASPALMASDEGRANCANARIA (Las Palmas) León y Castillo 322 35007 Tel.: 928 49 46 45 · CANTABRIA (Santander) Avda. Sotileza 8 39009 Tel.: 942 31 95 18 · SEVILLA Fernando IV 1 41011 Tel.: 954 28 60 28 · TARRAGONA Francesc Bastos 19 43005 Tel.: 977 19 10 00 · SANTA CRUZ DE TENERIFE Avda. de Anaga s/n 38001 Tel.: 922 59 89 31 · VALENCIA Avda. del Puerto 300 46024 Tel.: 963 35 99 14 · VIGO (Pontevedra) Avda. de Orillamar 51 36202 Tel.: 986216100 · VILAGARCÍA DA AROUSA (Pontevedra) Avda. da Mariña 23 36600 · Tel.: 986 56 83 63

ITSAS OSASUNeko TOKIKO ZENTROAK


ALGECIRAS (Cádiz) C/ Del Muro 11 11201 Tel.: 956 65 16 56 · AVILÉS (Gijón) Avda. Conde de Guadalhorce 97 33400 Tel.: 985 56 74 03 · BARBATE (Cádiz) Avda. del Generalísimo s/n 11160 Tel.: 956 43 05 79 · BERMEO (Bizkaia) Nardiz Tar Benanzio 7 48370 Tel.: 946 88 29 72 · BURELA (Lugo) Rosalía de Castro 20 27880 Tel.: 982 58 58 13 · CARBONERAS (Almería) Avda. del Faro de Mesa Roldán 98 04140 Tel.: 950 45 41 95 · CELEIRO (Lugo) Avda. Gerardo Harguindey Banet 7, 27863 Tel.: 982 56 15 61 · CORCUBIÓN (A Coruña) A Viña 5 15310 Tel.: 981 74 62 04 · FERROL (A Coruña) Ctra. Alta do Porto 25 15401 Tel.: 981 35 79 47 · ISLA CRISTINA (Huelva) Avda. Federico Silva Muñoz s/n 21410 Tel.: 959 34 38 63 · MUROS (A Coruña) Porta da Vila 16 15250 Tel.: 981 82 61 62 · NOIA (A Coruña) Avda. de la República Arxentina 21 15200 Tel.: 981 82 15 00 · ONDARROA (Bizkaia) Ibai-Ondo 6 48700 Tel.: 944 98 43 20 · PALMÓS (Girona) Plaça de la Catifa 3 17230 Tel.: 972 31 21 78 · PONTEVEDRA Simón Bolívar 3 36003 Tel.: 986 84 59 63 · ROSES (Girona) Avda. Tarragona 83 17480 Tel.: 972 15 47 05 · SANTOÑA (Cantabria) Méndez Núñez 1 39740 Tel.: 942 66 06 50 · SANTA UXÍA DE RIVEIRA (Vilagarcía da Arousa) Praza dos Mariñeiros 8 15960 Tel.: 981 87 05 40



Gehiago jakin nahi baduzu
Irrati bidezko Zentro
Medikoari buruz, eskaneatu
QR kode hau:



Nipo papela: 273-150-15-0 Nipo digital: 273-150-16-6
Lege-gordailua: M-37385-2015



Zugatik,
beti linearen
bestaldean

Irrati bidezko Zentro Medikoa



Zer da Irrati bidezko Zentro Medikoa (IZM)?

Doako zerbitzu bat da, etengabea, Itsasoko Gizarte Institutuarena, zeinak, 1979az geroztik, larrialdietako laguntza medikoa bermatzen baitie munduko edozein tokitan nabigatzen ari diren itsasontzietako tripulazioei, egunean 24 orduz eta urteko egun guztietan. Inauguratu zenetik hona, 117.000 dei baino gehiago atenditu ditu.

IZMak laguntza-ontzietatik ere eskaintzen du irrati bidezko aholkularitza medikoa, hala Afrikako mendebaldeko kostan ibiltzen den "Esperanza del Mar" itsasontzitik, nola Ipar Atlantikoan eta Azore Irlen eta Bizkaiko Golkoaren artean, arrantza-kanpainen bilakaeraren arabera, ibiltzen den "Juan de la Cosa" itsasontzitik, baita atzerriko laguntza zentroetatik ere.

Noiz egin kontsulta IZMarekin?

Ontzian edozein motatako larrialdi sanitarioa, istripua zein gaixotasuna, gertatuz gero, edo zalantzak eragiten dituen arazo sanitarioa sortuz gero, ontziko arduradun sanitarioa harremanetan jar daiteke IZMarekin.

Kontuan hartu behar da irrati bidezko kontsulta medikoa ezin dela parekatu medikuaren bisitarekin. Azken horretan, medikuak pazientea "ikusi" eta "ukitu" dezake, eta itsasontzietan ez dauden baliabideak ditu diagnostikoa egiteko (analisiak, erradiografiak, etab.), eta, horregatik, egin daitekeen kontsulta oro itsasoratu aurretik egin behar da, eta ez da geroko utzi behar, ontziratu ondoren konponduko delakoan.

Nola jarri harremanetan IZMarekin?

Honela:

- **Telefonoz (satelitea/mugikorra):**
+ 34 91 310 34 75
- **Irratiz:** kostako estaziora deitu, eta IZMarekin konektatzeko eskatu.



Nola egin irrati bidezko kontsulta bat?

1. Harremanetan jarri aurretik, kasuari buruzko datu eta sintoma guztiak jaso behar dira. Datu-bilketa on batek laguntza azkarra eta eraginkorra ahalbidetzen du.
2. Papera eta lapitza eskura eduki behar dira, behar izanez gero kontsultan emandako aholkuak idatzi ahal izateko.
3. Gaixoak bertan egon behar du kontsulta egiten denean. Hori ezinezkoa bada, tripulatazaile batek lagundu beharko du medikuak eskatutako datuak biltzen eta haien berri ematen.
4. Eskura eduki beharko da arauzko botika-kutxako medikamentuen edo horiez gain dararmaten beste edozein medikamenturen zerrenda eguneratua, baita Ontziko Gida Sanitarioa ere.
5. Lasai egoten saiatu behar da, eta astiro eta argi hitz egin behar da.

Badago beste komunikazio-sistamarik?

Posta elektronikoa: centroradiomedico.ism@seg-social.es

Helbide hori EZ DA KONTSULTAK EGITEKO. Bakarrik dokumentuak eta argazkiak bidaltzeko erabiliko da, aldeztuz zainzako medikuarekin horrela adostu bada irrati bidezko kontsulta mediko batean.

Bideokonferentzia: IZMak badu bideokonferentziak egiteko teknologia, baina hura hasi aurretik irrati bidezko kontsulta medikoetarako telefonora deitu behar da.

Zeintzuk dira itsasontziari eta pazienteari buruz jaso behar diren datuak?



1. **Itsasontziaren izena eta kokapena** (ebakuazio-aukerak, halakorik beharko balitz, aztertzeke balio du).
2. **Pazientearen izen-abizenak eta NANA** (aurrekari klinikoak, azterketa medikoak eta abar kontsultatzeko behar dira)
3. **Zein da arazoa?** (modu zehatzean adierazi behar da zer gertatzen zaion pazienteari).
4. **Noiztik dago horrela?** (minutuak, orduak eta egunak).
5. **Nola hasi zen?**
6. **Non dauka arazoa?** (erabili sintomen edo lesioen kokapen-laminak).
7. **Gertatzen zaion lehendabiziko aldia da?**
8. **Nolakoak dira bizi-konstanteak?** (tenperatura, pultsua eta tentsio arteriala)
9. **Tratamendu medikoren baten pean dago?** (zein eta zergatik).
10. **Badu alergiairik?**